



# #1 Hiruhilekoa

Ikasturtea ekintzaz beterik hasi dugu

Irailean Mahi-Mahi itsasontzira bueltatu ginen, eta udari agur esan eta bidaia hasteko, izozkiak jan eta paperezko izozkiak egin genituen.



Udari agur esan genion hotzikara gozo batekin. Helatua jan eta gure uda postre bilakatuz gero, jangelan zer nolako postre jango genukeen irudikatu genuen.



Mahi-Mahi itsasontzian munduan zehar bidaiatzen dugu eta beste kultura, jaki zein ekintzak esploratzeko aukera ematen digu honek. Lehen bidaia Taiwanera egin genuen, bertako jakiak ezagutzuz, baita garraioak ere.



Bikingo ere bilakatu ginen. Jantokian sortzen diren kartoiak hondakin bilakatu beharrean itsasontzi, ezkutu eta ezpata bilakatu genituen.





Ama-lurra gure bizitzaren oinarria da, baina nola zaindu dezakegu? Zer egiten du ama-lurrak guregatik? Bazkariko jogur potoak birziklatuz, nautaren zikloa ulertu eta ezagutzeko, lekaleak landatu genituen.



Elikadura tailerra ere izan dugu, Judith, Mahi-Mahiko nutrizionistaren eskutik. Dastamena landu genuen, zapore bakoitza mingainaren zein zatitan antzematen den ikasi eta dastamenak eginez.





Arimen eguna ospatu genuen. Halloweenen jatorria azertu genuen, Zeltek ospatutako Samhain jaia ezagutuz. Guk ere geure modura hildako eta bizidunen arteko lotura ospatu genuen.




Txina ere bisitatu du gure barkuak. Bertako platerak asko gustatu zitzaizkigun!







Denok bat izatearen garrantzia, elkar-bizitza eta elkar-lana zeinen garrantzitsuak diren ere ikasi dugu. Mahi-Mahi piratek denbora asko ematen dute elkarrekin itsasontzi barruan bidaiari. Eta denak bat izatea ezinbestekoa da giro onean bidaiatzeko, baita altxorak topatzeko ere. Guk ere bat egin eta altxorra bilatu genuen guztion artean. Golazenen aurrestreinaldirako sarrerak!



Ikastolan gauza ugari ditugu, jolasteko hamaika aukera, baina askotan irudimen apur bat behar izaten dugu hau ikusteko. Frantziatik etorritako Pot Purri esamoldeari bueltak emanez, elementu erabat ezberdinak nahastuz, gauza zoragarriak lortu daitezkeela ikasi dugu. Kartoizko tutuak birziklatu eta gure jolas kutxako baloi bat hartuz, bolo txapelketa bat antolatu genuen segituan.





Emozioz beteriko egunak ere bizi izan ditugu. Go!azenen aurrestreinaldiarekin adibidez. Urduritasuna, zirrara... Denboraldi berriko lehen atala primizian ikusteko aukera izan genuen, telebistan estreinatu aurretik. Pertsonaia berriak ezagutu, Basakabin ere Mahi-Mahi jantoki bat dutela deskubritu, abestu, dantzatu... Aretoan denak adi-adi egon ginen.







Berdintasuna, errespetua eta biolentzia baztertzea gure eguneroko balioak diren arren, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren inguruan lanean ari ginen aste oso batez. Izeberg honen punta ikusten dugu, baina azpian dauden arazo ezkutatu guzti horiek landu genituen guztion artean. Mahi-Mahi piratok beldur barik bizi nahi dugulako.




Atzerriko hizkuntzez aritzen gara, baita baita geureaz ere. Gu geu gara eta gure hizkuntza, gure ohiturak eta gure kultura ere ezagutu eta maitatzen dugu. Mahai-jolas, baloiarekin edota altxorren bilarekin bezain ondo pasa genuen herri kirolak egiten.




Alemaniar gastronomia ere dastatu dugu! Eta gustora asko gainera!





Eta euskararen egunean gure hizkuntza zenbat maite dugun ospatu genuen. Egunero erabiltzen dugun hizkuntza, baina data berezi honetan, gure hizkuntza propioa izatearen zortea ospatzea dugu.



Oporretara joan aurretik, Gabonak nahiko luketeen bezala pasatzeko aukera ez duten pertsonekin keinu bat ere izan dugu. Bakarrik senti ez daitezen, maitasunez beteriko postalak egin dizkiegu, gure inguruko jantoki sozialetan banatuko direnak.





# #Hezilagunak

## Mahi-Mahi piraten bidelagunak

Piratok hamaika abentura bizi, gaitasun berriak barneratu eta gure atunomia garatzen jarraitu dezagun, Hezilagunon laguntza ezinbestekoa da. Ikasleak bidai honetan nola lagundu eta jantoki eta patioan eman daitezkeen egoeren aurrean nola erantzun jakiteko, formakuntza etengabea jasotzen dute.



Hiruileko honetan Gatazken Kudeaketa ikastaroa egin dute Mahi-Mahi Hezilagunek. Egunerokoan ematen diren gatazken aurrean nola jokatu ikasiz eta praktikan jarritz. Formakuntza Hezilagunen garapen programaren barruan eman da, eta Baketik Institutuaren kolaborazioarekin.

